



udal-1-batzarre  
E-12.09.10

**Unai Rekondo Perez, Ormaiztegi Udaleko Idazkari-kontuhartzaileak**

### **ZIURTATZEN DU:**

Udalbatza Osokoak, 2012ko ekainaren 27an eginiko ezohiko batzarrean, besteak beste, honako letraz letrazko erabakia onartu zuela:

---

#### **PUNTU BAKARRA:**

**ORMAIZTEGIKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN 12 ZELAETA EREMUKO XEHETASUN AZTERKETA, IRIZAR S. COOP.ek SUSTATUA, BEHIN BETIKO IZAERAZ ONARTZEA.**

Rosario M<sup>a</sup> Urquia Goitiak adierazi du gai honen inguruan zegokion Batzordeak aldeko diktamina eman zuela, eta jarraian, udalkideei galdetu die ez beste ezer gaineratu nahi duten. Bertaratutako Udalkideek ez dute hitzik hartu.

Jarraian, udalkideak gaia bozkatzera igaro dira, eta BILDU udal taldeko Rosario M<sup>a</sup> Urquia Goitia, Aitor Iraeta eta Iñigo Mendiaren, O.H.T. udal taldeko Juan Lobato eta Maria Martinezen eta ORBEL udal taldeko Jon Miren Intxausti eta Idoia Irizarren aho batezko aldeko botoekin, Ormaiztegi Udalbatza Plenoak, Hirigintza eta Obrak Udal Batzorde Informatzaileak onartutako diktamina onartu du, honako hau delarik onartutako akordioa:

---

Alkatetzaren R-12/121 ebazpenez, Ormaiztegi Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 12 Zelaeta eremuko Xehetasun Azterketa, Irizar S. Coop.-ek sustatua, hasieraz onartu zen, jarraian aipatzen diren baldintzekin, udal arkitektoaren 2012.05.09-ko datadun txostenari jarraiki:

- Dokumentua zuzendu beharko da, behin betiko onarpena eman baino lehen, Ormaiztegi Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean aurrikusitako gehienezko eraikuntza lerrokaduratik plantan haratago doazen teilatu-hegalen euskarriei egiten zaien erreferentzia ezabatu aldera.

...//...



udal-1-batzarre  
E-12.09.11

...//...

Halaber, xehetasun azterlana jendaurrean jarri zen hogei egunez, aztertua izan ahal zedin eta bere kasuan zegozkion alegazioak aurkeztu ahal zitezen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2012.05.22-ko datan dagokion iragarkia argitaratuz eta halaber 2012.05.22-ko datan lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkari batean dagokion iragarkia argitaratuz.

Kontutan harturik aipaturiko jendaurreko epean ez dela inongo alegaziorik aurkeztu.

Kontutan harturik 2012.06.18ko datan udal arkitektoak xehetasun azterlana behin betikoz onartzearen aldeko txostena eman duela, txosten horretan adierazten baita era egokian jasotzen direla dokumentuaren hasierako onarpenerako eginiko txostenean egin ziren adierazpenak.

Hori guztia ikusirik,

**ERABAKITZEN DA:**

**LEHENENGO:**

Ormaiztegiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 12 Zelaeta eremuko Xehetasun Azterketa, Irizar S. Coop.-ek sustatua, behin betikoz onartzea.

**BIGARREN:**

Xehetasun azterlana igortzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroan sar dadin.

**HIRUGARREN:**

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespina emateko erabakiak eta, hirigintzako arauak, dagokion hirigintza-plana aurreko paragrafoetan aipatutako erregistroan jaso dela adieraziz.

**LAUGARREN:**

Behin betiko onarpenaren akordioa lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian argitara ematea.

**BOSGARREN:**

Akordio hau Irizar S. Coop.-i jakinaraztea.

...//...



udal-1-batzarre  
E-12.09.12

...//...

Eta honela agerian gera dadin eta dagokion ondorioak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatzen dut, dagokion aktaren onarpenean finkatzen denaren kalterik gabe, azaroaren 28ko 2568/1986 E.D.z onarturiko Entitate Lokaleen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Legezko Jardunbidearen Erregelamenduaren 206 artikuluan xedatzen denaren arabera eta Alkate-Lehendakariaren oniritziz, Ormaiztegin, bi mila eta hamabiko ekainaren hogeita zortzian.

O.I.

Alkate-Lehendakaria,

